

DEIALDI INTERNAZIONALA!

ZATOZTE GUREKIN BERRIZ ERE EKINTZA, TAILER ETA SKILLSHARING ANTIESPEZISTAZ BETETAKO ASTE BATERA.

Maiatzaren 20tik 25era, Hambacheko basoa.

Liberate or Dieren hirugarren edizioa: From Cage to Freedomek elkar aurkitzeko, jakintza partekatzeko eta espezismoa denok batera erasotzeko leku bat eskaini nahi du. Lehenago bezala, biltzarra Hambacheko baso okupatuan izango da, borroka antikapitalista eta justizia klimatikoaren erdiguneetako bat Europan mailan.

EKITALDI HAU EKINTZA ZUZENERA ZUZENDUTA DAGO.

Besterik gabe ezagutzak partekatu beharrean, egun bakoitza ekintza eguna izango da, eta bertan jakintza berriak aurrera eraman ditzazkegu. Jendea beren kabuz ekintzak egiten hastera bultzatu nahi dugu, erakunde mainstream/erreformistei baimenik eskatu gabe. Ekintza mota ezberdinen aukera anitz bat egongo da, bakoitzaren interes eta arrisku mailaren arabera. Ekintza ezberdinak proposatu arren, zuen planekin etortzera gonbidatzen zaituztegu, eta zuen kabuz ekitera.

EKITALDI HAU INTERSEKZIONALA DA.

Antiespezismoa eta zapalkuntzaren aurkako gainerako borroken arteko lotura azpimarratu nahi dugu. Honek bakoitzaren pribilegioak burutan izatea esan nahi du, denon artean hierarkia oro desafiatzen duen espazio bat sortzeko, erabateko askapenerako bidean. Hau emango diren tailerretan argi nabarituko da. Leku hau ez da azken urteetan animalien eskubideen inguruko talde batzuetan sartu diren ideia arrazista, sexista, homofobo eta abarretarako.

EKITALDI HAU DEBALDE DA.

Ez duzu etortzeko ordaindu behar! Donazioak onartzen diren arren, jendeak ezer ez zuela ordaindu beharko uste dugu. Ekitaldi hau doainik eskaini dezakegu guk bertan antolatzen dugulako. Gatozen guztiok gara antolakuntzaren kide, eta bakoitza biltzarraren mantenuan parte hartzera animatzen dugu. Eginbehar bat ikusten baduzu, baduzu zereginik!

EKITALDI HAU OKUPATUTAKO LEKU BATEAN DA.

Biltzarra emango den lekua lur okupatu autonomoa da. Hone zera esan nahi du: denon artean zaindu behar dugu basoko ekosistema.

Zaindu bideetan ibiltzea basoa zapaldu gabe, zure zaborra jaso, natura errespetatu.

Baina baita ere, adi estatuak muturrak ez ditzan sartu. Datozenek argi izan behar dute polizia inguruak nahastera etor daitekeela, uniforme jantzita edo isilpean.

Iristean eskubide legalei buruzko informazioa banatuko da, eta baita jendailarekin nola jokatu.

Tailerretarako ideiarik baduzu, edo beste edozein gaietarako, hemen

Informazio gehiago eta tailerren zerrenda aurki.

Zabaldu deia eta segi basa!!